

PRENTSA OHARRA

Donostiako Giza Eskubideen 17 Zinemaldiaren harira

“ROHINGYEN EXODOA” ERAKUSKETA DONOSTIARA IRISTEN DA KRISI HUMANITARIO HAU AHAZTUTA GERA EZ DADIN

Urte eta erdi ondoren, rohingyak bizi baldintza onartezinekin eta limbo legal batean jarraitzen dutela dio Mugarik Gabeko Medikuek

Donostiako Udaleko Giza Eskubide arloak eta Donostia Kulturak babesturiko erakusketa honek munduko errefuxiatu esparru handienera eramaten gaitu

Bisita gidatuak eta errealtate birtualeko bideo bat eskeintzen du. Ikusgai egongo da Aiete Kultur Etxean apirilaren 3tik maiatzaren 30era

(Donostia, 2019ko apirilak 11).- Gaur goizean, Giza Eskubideen 17 Zinemaldiaren harira, Donostiako Udaleko Giza Eskubide arloak eta Donostia Kulturak “Rohingyen exodoa” erakusketa aurkeztu dute Aiete Kultur Etxean. Mugarik Gabeko Medikuek (MGM) erakundeko erakusketa honek munduko errefuxiatu esparru handienera eramaten gaitu eta bertan bizi diren rohingyei buruz hitzegiten digu. Rohingya munduko herri-multzo ahaztuenetako bat dira. Myanmarren, hamarkadetan, jazarpenaren biktimak izan ondoren, 2017ko abuztuaren birmaniako segurtasun indarren operazio militar bortitz baten helburu izan ziren. Gertakizun honek, herri-multzo honen historian gertatu den exodo handiena eragin zuen. Orain, 900.000 errefuxiatu rohingya baino gehiago ozta-ozta eta pilatuta bizi dira banbuzko kanaberaz eta plastikoz eginiko etxe bizitza prekarioetan, Bangladesheko Cox's Bazar barrutian.

Zenbaki honen atzean, ahaztuta geratzea merezi ez duten pertsonak eta istorioak daudelako, “Rohingyen exodoak” beraien azalean jar zaitezten du helburu. Horretarako, bisita gidatuak eta 360ºko bideo murgilgarri bat dugu.

| ROHINGYEN EXODOA: XXI MENDEKO EXODO HANDIENA

Rohingya aberrigabeak, murrizketaz eta jazarpenez jositako bizitza daramate hamarkadetan Myanmarren. 2017ko abuztuaren 25an, Rakain estatuan Birmaniako segurtasun indarrek egin zuten operazio batek gehiengo musulmaneko komunitate honen historiako exodo handiena eragin zuen ondoko Bangladeshera. Soinean zutenarekin ihes egin zuten eta, oztopo, indarkeria eta suntsipenez betetako bide bati ekin zioten. 2017ko abuztuaren 25etik irailaren 24era [6.700 rohingy erail zituzten](#) Rakain estatuan MGMk atzera begira egindako heriotza inkesta desberdinen arabera. Gutxienez, 730 bost urte baino gutxiago zituzten haurrak ziren.

Exodo berri honetan ihes egin zuten pertsonak aurreko erasoetan Myanmarretik ihes egin zuten 200.000 pertsona baino gehiagori batu zitzaizkien, beraz ia milioi bat errefuxiatu bizi dira Bangladesheko Cox's Bazar auzoan, baldintza penagarrietan.

Urte eta erdi baina gehiago igaro da eta inprobisatutako kanpamenduetan gainpopulazioa dago oraindik, nazioarteko estandar humanitarioen gutxieneko baldintzetatik oso azpitik. Iritsi zirenean eraiki zituzten aterpe berdinetan igaro dute montzoia errefuxiatuek: banbuz, olanaz eta plastikoz egindako txabolak. Eta etxebizitza horiek zikloi denboraldiari aurre egin behar izan diote ere.

Esparruetan ez dago epe erdira edo luzera funtziona dezakeen egiturarik edo zerbitzurik. Biztanleen oinarritzko beharrak, hots, edateko ura, saneamendua eta higiena, estali gabe daude oraindik eta horrek eragin handia du errefuxiatuen osasun fisikoan zein mentalean. Beherako urtsu larria, arnasketa gaixotasunak eta azaleko gaixotasunak dituzten pazienteei arreta eskaintzen jarraitzen du MGMk.

Egonlekuak dauden lurrak –menditsuak eta muino txikiz josiak– zerbitzu berriak ezartzea zailtzen du, baita lehendik daudenetara iristea ere, batez ere, adinduentzat eta ezintasunen bat duten pertsonentzat. Bestalde, pilaketak, distantzia luzeak eta segurtasunari buruzko bestelako buruhaustek, askotan, zerbitzuak jasotzea saihesten die emakumeei, batez ere, haurdun daudenei eta neskatilei.

Bangladeshen dauden rohingya gehienek ez dute errefuxiatu estatusa, ez dute hezkuntzarik eta esparruetatik kanpoko mugimenduak mugatuta dituzte, beraz oso zaila da mediku arreta eta beste zerbitzu batzuk eduki ahal izatea. Etorkizunari buruzko ziurgabetasuna da oraindik beraien kezka nagusia. Myanmarrera itzultzea borondatezkoa, segurua eta duina izan behar da. MGMk bitarteko gisa aritzea eskatzen die Myanmarren ahotsa duten Gobernuai, rohingyen aurkako biolentzia eta diskriminazioarekin amaitzeko eta beren jatorrizko lekuetara itzuli ahal izateko. Bitartean, Bangladeshen dauden rohingyeei errefuxiatu estatusa edo bestelako lege baldintza eman beharko zaie.

| MGM ETA ROHINGYEN OSASUNA



MGM 1985ean hasi zen Bangladeshen lanean eta 1992tik etengabeko laguntza eskaintzen du; aldizkako proiektuekin eta zikloien ondoren, izurriteetan, elikadura krisietan eta beste larrialdi batzuetan esku hartzeak eginez. Cox's Bazar barrutiak hamarkadak daramatza Myanmarreko Rakain estatutik jazarpenagatik ihes egiten duen rohingya musulmanen gutxiengoa hartzen. 2017ko abuztuan hasi zen exodo jendetsuaren ondoren, MGM bere agerpena areagotu zuen errefuxiatuak artatu ahal izateko. 2018ko abuztuan, erakundeak 2.000

langile baino gehiago zituen sakabanatuta eta lau ospitaletan, lehen mailako arretako bost zentrotan, zortzi osasun postutan eta izurriteei erantzuteko zentro batean ari zen arreta eskaintzen.

Jarduerak zifratan

2017ko abuztutik 2018ko abendura bitartean, MGM taldeek milioi bat kontsulta mediko (larrialdiak, kanpo kontsultak eta klinika mugikorak) egin zituzten eta 2.192 erditze baino gehiagoz arduratu ziren. 92.766 paziente baino gehiago artatu zituzten beherako akutuarekin, 6.547 paziente diferiarekin, eta 87,8 milioi ur litro banatu zituzten.


| ERAKUSKETA

"Rohingyen exodoa" erakusketak jazarpenetik eta biolentziatik ihes eginez beren herrialdea utzi eta Bangladeshera joan behar izan duten errefuxiatu rohingyen istorioak jasotzen ditu. Anna Surinyach-en argazkiek inprobisatutako kokalekuetako bizi baldintzak erakusten dizkigu: errutina eta egunerokotasuna esparruetan, errefuxiatuen osasunean duten eragina eta exodo masibo eta derrigortu baten biktimen testigantzak biltzen ditu, besteak beste.

Erakusketaren espazio garrantzitsuenetako bat '360°-ko bideoa' izenekoa da. Helburua: bideo murgilgarri hau ikusten duten pertsonak errefuxiatu rohingyen tokian jartzea. Betaurreko berezi batzuei esker, ikusleak norabide guztietan begiratu eta arretan non finkatu nahi duen aukera dezake. "Emaiza esperientzia enpatikoagoa lortzea da, hau da, erreportajeak lantzen duen errealtatean gehiago murgiltzea. Aurreko esperientzietan oinarrituz, badakigu pertsona gehienek esperientzia emozional sakona bizitzen dutela. Exodoak eragindako pertsonen arreta eskaintzeko beharrari buruzko kontzientzia hartzen dute" dio Nagore Eskisabelek, MGMko Ipar eremuko arduradunak.



"ROHINGYEN EXODOA"



Erakusketa:

Apirilaren 3tik maiatzaren 30era

Asteartetik ostiralera 16etatik 20.30etara. Larunbatak 10etatik 14etara eta 16.30etatik 20etara. Igandeak 10etatik 14etara. Sarrera doakoa. Bisita gidatuak daude MSFko langileekin.

Bisita gidatua egiteko izena eman behar da posta elektroniko bidez edo telefono hauetara deituta 943 456 000/678 204 635.

Errealitate birtuala:

Bisita gidatuak dauden unean, baita ostegun eta ostiraleetan 17etatik 20etara eta larunbateetan 11etatik 13etara

| KOMUNIKABIDEETARAKO ERAKUSKETAKO MATERIALAK

BIDEOEN AUKERAKETA

Deskargak egiteko esteka:

- **Rohingyen exodoa 360°-tan bideoa.**

Youtubeko esteka webguneetan txertatzeko: <https://youtu.be/iYUVRBynXjc>

- **Trailer-bideoa (360°-ko simulazioarekin)** komunikabideetarako.

Youtubeko esteka webguneetan txertatzeko: <https://youtu.be/rH8hmgj2p7c>

- **Bangladesheko errefuxiatu rohingyen esparruetako baliabideen bideoa.**

Deskargak egiteko esteka:

<https://media.msf.org/Share/2585a8006sj57002fj0412a0w8kc4614>

- **Editatutako bideoak azpiztituluekin. Etendako bizitzak: familia bateko kideek Myanmarretik nola ihes egin zuten eta Bangladesheko errefuxiatu eremuetan bizi dituzten zailtasunak kontatzen dituzte.**

Deskargak egiteko esteka: <https://media.msf.org/Share/7i700ir2fu17ov1q84bdu3gl8n3aaqm1>

ARGAZKIEN AUKERAKETA

- **Erakusketako argazkien aukeraketa.** Argazkien kredituak: Anna Surinyach.

Deskargak egiteko esteka:

<https://media.msf.org/Share/4nhr121ie3e6813ciq0tr8q7uf21867x>

- **360°-ko argazkiak.** Argazkien kredituak: Anna Surinyach.

Deskargak egiteko esteka:

<https://media.msf.org/Share/10431k0jp47a5623o71p1gv142440r60>

- **Kutupalong-eko errefuxiatu esparruko bilakaeraren satellite bidezko argazkiak (exodoaren aurretik eta ondoren).** Deskargak egiteko esteka:

<https://media.msf.org/Share/8vkj3e05ul8erh8i4n0l53r5nqrj31k3>

| INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK

Nagore Eskisabel / (+34) 629 753 103 / nagore.eskisabel@barcelona.msf.org

Twitter @MSF_NagoreEsk - Facebook: Nagore Eskisabel Msf www.msf.es